




# FRIEDRICH NIETZSCHE

## XIX. MENDEKO FILOSOFIA

# SUSMOAREN FILOSOFOAK

- Marx, Nietzsche, Freud: **susmoaren filosofoak**: Mendebaldeko kulturako ereduak kaltegarriak izan dira gizakiarentzat.
  - Marxen susmoa: ideia politikoak eta juridikoak gizarte-klase nagusiaren mesedetan daude.
  - Nietzscheren susmoa: bi mila urteotan gizadiak okerreko bidea egin du; kristautasunarena da batez ere errua.
  - Freuden susmoa: ezkutuan ditugun bulkada irrazionalek jarrera arrazionalek baino eragin handiagoa dute gure portaeran.



## KRISTAUTASUNARI KRITIKA

- Nietzschek **Platon**en pentsamenduan jartzen du kristautasunaren kritikarako abiapuntua. Kristautasuna = platonismo herrikoia. Mundu erreala ukatzen du. Mendebaldeko kulturari kritika.
- Erlijioa, metafisika bezala, gezur batean oinarritzen da; bizitza ukatzen du:
  - **Mundu fisikoa / haraindiko mundua.**  
Mundu fisikoan gustura ez dagoenez, haraindiko mundua asmatu du gizakiak.
- **Bitalismo**aren aldeko filosofia.
- Apolo / Dioniso.
- Erlijioak balio dekadenteak.
- Esklaboen morala vs. Jaunen morala.
- **Antikristoa** idazlanean kritika kristautasunari: gorputzak behar/nahi duena ukatzen du.
- Bekatuaren beldurrak bizimodu ederra eta osasuntsua zapuzten du.
- Jainkoaren heriotzak gizakia garatzea ahalbidetuko du.



## JAINKOAREN HERIOTZA ETA AZKEN GIZAKIA

- **Zientzia alaia** idazlanean aldarrikatzen du Jainkoaren heriotza.
- Jainkoa desagertzean desagertu egiten dira hari lotutako balio absolutuak eta lege moral objektiboa. Elizak erabilitako erremintak: damua, errua, bekatua, beldurra, kontzientzia...
- Ateismoa. Gizakiak bete behar du Jainkoaren lekua, balio-sortzaile eta legegile izanik.
- **Honela mintzatu zen Zaratustran** Jainkoaren heriotza gertaera historikoa dela dio.
  - Zaratustra pertsonaia ohartzen da lehenbizikoz Jainkoaren heriotzaz.
- Jainkoa hil denez, gu guztiok azken gizakia gara.
  - Horren aurrean **nihilismoan geratzeko arriskua** dago.
  - Egoera onartzea eta balioak sortzea da gizakiak egin behar duena.
  - **Supergizakia** da hori egingo duena.



## SUPERGIZAKIA

- Jainkoaren heriotzaren ondorengo urratsa **supergizakiaren sorrera** da.
- Iraganera lotzen duten kateak eten behar ditu gizakiak, bere etorkizunaren jabe izan.
- Izatez agortzen ari den metafisikaren amaieran dago gizakia; Nietzschek **azkartu** egin nahi du prozesua.
- Irudi batzuen bidez azaltzen du gizaki kristautik supergizakira pasatzeko prozesua:
  - **Gamelua:**
    - Lege moralaren **zama** adierazten du. Gizakia zama horrek zapalduta bizi da.
    - Idealismoaren mende dagoena gameluaren antzekoa da: agindu zorrotzak eta astunak betetzen ditu, Jainkoaren esana.
    - Mendebaldeko gizakiaren bizitza = basamortukoa (sufirimenduzkoa, neketsua)



## ○ Lehoia:

- Lehoi bihurtzen da zamaz ohartzen denean.
- Idealismoaren gainbehera: ezarritako legeen aurka egiten du lehoiak.
- **Aurreko bizitzaren aurka**, bere nahia jartzen du lehoiak.
- Lehoiak ez du balio berriak sortzen nahikoa indar.

## ○ Haurra:

- Haur bihurtzen da, haurrak duelako balio berriak sortzeko **sormena**.
- Ez da beldurtzen jolas eta egoera berrien aurrean, ezagutu egin nahi du.
- Haurraren jolasteko gogo bizitzeko gogoarekin lotzen du Nietzschek.
- Horrela jaioko da supergizakia.

